

Zertan den Nafarroa

2016 | ESPAINIAKO UNITATEA



01 Nafarroako ekonomia % 2,9 haziko da 2016an eta % 2,4 2017an, urte horren amaieran langabezia tasa %11 ingurura jaitsiz

02 Barne eskariak hazkundera bultzatzen jarraitzen du. Arrisku gehiago eta bultzada txikiagoek dinamikotasuna gutxituko dute 2017an

03 Barne eskariaren bultzadak ez du atzerapausorik eraginen enpresa nafarren nazioartekotze prozesuan

04 Hezkuntza alorrean ahaleginak handitzea beharrezkoa da Europako eskualdeen pareko giza kapitala erdiesteko

Aurkibidea

1	Editoriala	3
2	Nafarroako ekonomiaren perspektibak	5
	1. errekoadroa. Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2016ko hirugarren hiruhilekoa	23
	2. errekoadroa. Eragiten al dio barne-eskariaren bilakaerak Nafarroako esportazioen hazkundeari?	25
3	Espainiako eta espainiar eskualdeetako biztanleen hezkuntza-maila: 1960-2011. Nafarroaren kasua	27
4	Taulak	30

Itxiera data: 2016ko irailak 28

1 Editoriala

Nafarroako ekonomiak oso jokabide dinamikoa izaten jarraitzen du eta laugarren hazkunde-urte izatea lortuko du 2017ra arte, horietatik hiru batez besteko historikoaren gainera¹. Nafarroa barnean, kontsumoa berreskuratzea izan da hazkunderaren motor nagusia, batez ere kontsumo pribatua, eta lagungarri gertatu dira bai diru-politika eta bai, neurri txikiagoan, zerga-politika (nahiko malguak biak ere). Kanpo-eskaria funtsezkoa da Nafarroako ekonomian, eta alor horrek akidura-sintoma zenbait erakutsi ditu. Gainera, inbertsioa ere baldintzatu du horrek. Oro har, ekonomiaren hobekuntzak afiliazioak gora egitea ekarri du, baina, aurrera begira, motelaldi bat aurreikusten da.

Maila globalean, hedapen apala izan du munduko ekonomiak, urteko % 3 inguruko gehikuntzekin. Hala ere, gertatu egin da sumatzen zen arriskueta bat –Erresuma Batuko kontsultaren *bexitaren* aldeko emaitza–, eta hazkunderari buruzko aurreikuspenak beharrezko joera hartuta berrikusi behar izan dira, batez ere Europan. Gainera, AEBko Erreserba Federalak (Fed) atzeratu egin du interes-tasak normalizatzeko prozesua, kontuan hartuta Ameriketako ekonomiaren koiunturaren inguruan sortutako zalantzak, luzera begirako dinamismoa eta arrisku globalak.

Espanian, berretsi egin da BPGren hazkunderako joera 2016an, baina 2017an hazkunde hori moteldu egingo dela adierazten dute elementu ugari². Dena den, diru-politikak eta beste hainbat elementu lagunduta, susperraldiak eta enpleguaren sorrerak jarraitu egingo dutela espero da. Hala ere, gero eta handiagoa da Espainiako ekonomiaren zaurgarritasuna. Beraz, hurrengo urteetan garatuko diren politikak ahalik eta lasterren definitzea komeni da.

Nafarroan, urtearen lehen seihilekoan sumatutako aurrerapena oinarri hartuta, 2016rako aurreikusitako hazkundera hobetu ahal izan da, % 2,9ra arte. Argitalpen honen itxieran eskura ditugun adierazleek erakusten dutenez, aurtengo hirugarren hiruhilekoan eskualdeko BPG % 0,7 haz daiteke (h/h), Nafarroarako MICA-BBVA eredia aintzat hartuta, eta gehikuntza segidako bederatzi hiruhilekotan lotuko litzateke horrela. Dinamismo horren atzean, barne-eskaria suspertzea dago, batez ere familien kontsumoari lotuta eta, neurri txikiagoan, gastu publikoaren eta inbertsioaren inguruko hedapen-politika, ekipamendu ondasunen inportazioan babestuta. Aldiz, jokabide irregularragoa erakutsi dute esportazioek, batez ere automobilgintzan eta ekipamendu-ondasunetan urtean zehar sumatutako gorabeheren erreparatuta. Inportazioek, berriz, gorantz jarraitzen dute, motelxeago bada ere.

Aurrera begira, agertoki makroekonomiko eguneratuaren arabera, 2017an hazkundera apaldu egingo da, % 2,4ra iritsi arte, estatuko batez bestekoaren hamarren bat gainera. Horri esker, 10 mila enpleguko hazkundera izango da 2016ko bigarren hiruhilekotik 2017aren amaierara, eta langabezia-tasa % 11 ingurura arte murriztuko da. Moteltze-prozesua orokorra bada ere (hazkunde-aurreikuspena beharrezko berrikusi da autonomia-erkidego guztietan)³, nabarmenagoa izango da uneotan jarduera handiagoa duten eskualdeetan.

Hainbat faktorek bultzatu dute berrikuspen hori, eta eskualdeen arabera eragin desberdina izatea arrazoitzen dute. Zehazki, osotara Espainiak izango duen motelaldia baino txikiagoa izango du Nafarroako Foru Erkidegoak. Alde batetik, hurrengo urteko hazkunde txikiagoaren zati bat, aldeko zenbait haizek indarra galtzearen ondorio da. Ildo horretatik, bai diru-politikak eta bai petrolioaren prezio baxuek

¹ 1981-2014 epean.

² Ikusi *Situación España 3T16*, [Hemen](#)

³ Ikusi *Observatorio Regional 3T16*, BBVA Research. [Hemen](#)

hazkundera sustatzen jarraitu arren, horien eragina txikiagotu egingo da datozen hilabeteetan. Karga finantzarioak murrizteak (interes-tasa txikiagoei esker) eta garraio-kostuak jaisteak lehiakortasuna sustatu dute, edota zenbait errenta libre geratu dira, eta kontsumoa eta inbertsioa indartzen lagundu du horrek. Europako Banku Zentralak zailtasunak ditu diruaren kostua murrizten jarraitzeko, ehuneko zeroko interes-tasa nominalaren mugagatik eta berriki petrolioaren prezioak izandako gorakada kontuan hartuta, eta etekinak ere mugatu egiten ditu horrek. Nafarroako ekonomiaren kasuan, zorpetze-maila erlatibo txikiagoa duenez, ez dute halako onurarik adierazi interes-tasen murrizketek; baina, aldi berean, horri esker, eskualdearen hazkundera ez dago horrenbeste horrelako bulkaden menpe. Aldiz, petrolioaren prezioak produkzio-jarduerarako garrantzi handiagoa duenez (garraioaren kostuak aintzat hartuta), eragin handiagoa izan dezake Nafarroako Foru Erkidegoan horrek, petrolioaren prezioen agertokia gorantz berrikusteak. Eta, beraz, duela zenbait hilabete uste baino okerragoa da egoera. Horrez gain, automobilgintzan iragarritako inbertsioak, jada bidean direnak, euskarri dira eskualdearen jarduerarako.

Dena den, agertoki horretan, eskualdeko ekonomiak baditu beherantz berrikuspenetarako zenbait arrisku ere: lehenik, Nafarroako BPGren hazkundera 0,4 p.p. txikiagoa izan daiteke 2017an, Erresuma Batuan herrialdeak EBn jarraitu behar duen erabakitzeko egindako kontsultaren ondorioz. Zehazki, finantza-merkatuetan aldakortasun handiagoak, britainiar eskaria murrizteak eta euroaren aurrean liberak balioa galtzeak eragin negatiboa izango dutela pentsatzen da. Bigarrenik, handia da oraindik ere ekonomia-politikaren inguruko ziurgabetasuna, Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak irudikatzen duenez, argitalpen honetako 1. errekoadroan. Zehazki, inbertsio-proiektu batzuk edo kontsumo-ondasun iraunkorrak erosteko erabakiak atzeratzea ekar dezake horrek. Azkenik, Nafarroako Foru Erkidegoaren zerga-egoera Mediterraneo aldeko erkidegoetakoa baino hobea bada ere, zerga-politika ez da hain hedakorra izango oro har Espainian aurrera begira, horrek hazkunderari damaion bultzada ahulduz.

Hainbat erronka ditu Nafarroak aurrez aurre, eta garrantzitsua da horietatik indartuta irtetea. Lehenik eta behin, komeni da kanpo-sektorearen ekarpena berreskuratzea, eta dibertsifikazio sektoriala eta geografikoa bizkortzea. Argitalpen honetako 2. errekoadroak erakusten du Espainiako barne-eskariaren aldaketek Nafarroako esportazioetan izandako eragina, eta ondorio garbia dakar: barne-eskariak 2010etik 2013ra izandako gainbeherak azaltzen du Nafarroako Foru Erkidegoko kanpo-salmenten gehikuntzaren % 35. Baina eragin hori ez da simetrikoa susperraldietan, eta badirudi horrek aukera eman duela barne-eskaria berreskuratu den garaian nazioartekotze prozesuan izandako irabaziei eusteko. Nafarroako ekonomiak atzerriarekiko duen esposizioa espainiar eskualdeek batez beste dutena baino handiagoa da; baina garrantzitsua da orain ere bertako enpresen nazioartekotze apustua areagotzea. Hortan ezaugarri erabakigarriena enpresen neurria da, bai dibertsifikazio geografiko zein sektorialerako. Beraz, barne-merkatuetan lehiakortasuna suspertzearen aldeko apustua egin behar da.

Gainera, jada aurreko aldizkarietan planteatutako erronkei eusten die Nafarroak: langabezia-tasa eta iraupen luzeko langabezia-tasa murriztea, batez besteko laneko produkzioa areagotzea eta teknologia digitaletara egokitzea, jarduera-tasa handitzea eta giza kapitala hobetzea, bai eta I+G atalean inbertitzea ere. Alderdi horiek guztiek hobera egin behar dute Europako erreferentziatzko eskualdeekin parekatzeko prozesuan aurrera egiteko.

Azkenik, giza kapitalaren hobekuntzak funtsezko elementu izaten jarraitzen du. Ildo horretan, Nafarroako eta Espainiako hezkuntza-egoeraren bilakaera aztertzen da argitalpen honetako 3. atalean. Posizio okerragoetatik abiatzen ziren autonomia-erkidegoek besteekin parekatzeko egindako ahaleginak izan du emaitzarik: abiapuntu hobea zuten autonomia-erkidegoekiko aldea (Nafarroarekiko kasu) murriztu egin da azken 40 urteetan. Batez besteko prestakuntza-urteei dagokienez, 1960an estatuko batez bestekoa % 110ekoa zen erkidegoan eta, 2011n, % 104koa zen.

2 Nafarroako ekonomiaren perspektibak

Nafarroako ekonomiak hazten jarraitu du, bere batez besteko historikotik gora. 2015ean, % 2,9 **hazi zen** (1981etik 2014ra, % 2,2 batez beste), BBVA Research-ek argitalpen honen aurreko edizioan aurreikusitakoa baino hiru hamarren gutxiago. Kontsumoaren eta inbertsioaren indarrak azaltzen dute dinamismo hori, nahiz eta kanpora egindako salmentek jokabide ahul samarra erakutsi zuten. Enplegua % 2,2 handituta, lanaren batez besteko produktibitatearen hazkundera zazpi hamarrenera iritsi zen.

Sektoreen ikuspegitik, jarduera-adar esanguratsu guztiek ekarpen positiboa egin diote eskualdeko ekonomiaren hazkunderari 2015. urtean. Alde batetik, industriaren bizkortzea eta merkataritza, ostalaritza eta garraio sektoreen hazkunderaren jarraipena nabarmendu dira. Hazkunde osoaren erdia bi sektore horien ekarpenei dagokie, ia erdibana. Bestetik, gainerako zerbitzu pribatuek eta gizarte-zerbitzuek, orotara, ia beste puntu bateko ekarpena egin dute. Eta, azkenik, eraikuntzak hazkunde positiboa izan du, 2007tik lehen aldiz, 3 hamarreneko ekarpenaz (ikusi 2.1 grafikoa).

Orain arte ezagutzen dugun informazioaren arabera, eskualdeko ekonomia % 0,8ko erritmoan (h/h) hazi da urtearen lehen sei hilekoan (% 3,2 urteko tasan). Duela zenbait hilabete espero zenaren gainetik dago hori eta, beraz, hiru hamarren gorantz berrikusi du 2016rako aurreikuspena BBVA Research-ek, egungo % 2,9ra arte (ikusi 2.2 grafikoa).


Aurrera begira, 2016ko hirugarren hiruhilekoan argitaratutako *Observatorio Regional*⁴eko agertoki makroekonomikoaren eguneraketak, hazkunderaren moteltze bat aurreikusten du 2017an. Faktore ezberdinen ondorioz gertatzen da hori. Batetik, orain arte alde izandako zenbait haizek indarra galduko dutela pentsatzen da. Bereziki, munduko ekonomiak ez du bere hazkundera espero bezala azkartuko, hein batean *bexitaren* eragin negatiboen ondorioz, Nafarroako ekonomiari eragingo diolarik. Bestetik, petrolioaren esperotako kostua gorantz berrikusi da, erregaiaren erabilera intentsiboagoa duten eskualdeen gaineko onura mugatuz. Barrura begira, 2017rak bultzada fiskal txikiagoa espero da eta politika ekonomikoaren gaineko ziurgabetasunak altutik jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, **barne eskariak jarraituko du jardueraren zutarri nagusi izaten aurreikuspen epean zehar.**

Horrez gain, sumatzen ziren zenbait arrisku gertatu egin dira. Horixe da ekonomia-politikaren gaineko ziurgabetasunaren kasua, altua baita, eta britainiar erreferendumaren emaitzaren egikaritzea. Horrek guztiak, bereziki sektore pribatuan, atzerapena ekar dezake zenbait inbertsio-proiektutan edota produktu iraunkorrak erosteko erabakietan, eta britainiarrek Nafarroako ondasun eta zerbitzu gutxiago eskatzea ere bai. Zergen arloan, administrazio publikoek defizit-helburua ez betetzeak sinesgarritasuna gutxitzea dakar, bai eta egonkortze fiskala lortzeko prozesua luzatzea ere. Nafarroako Foru Erkidegoaren kasuan, Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeko aukeratik harago, hartutako neurriak aski izan litezke 2016an eskualdeko BPGren % 0,7ko helburura iristeko, nahiz eta gastuaren kontrola zorroztu beharko den eta diru bilketaren bilakaerara doitu.

Hortaz, **probabilitate handieneko agertokian, jarduera ekonomikoa % 2,9 haziko da berriro ere 2016an, nahiz eta % 2,4ra jaitsiko den 2017an; oraindik ere batez besteko hazkunde historikoaren pare bat hamarren gainetik. Hurrengo urte eta erdian, hots, 2017. urtearen amaiera arte, 10 mila enplegu garbiren sorrera ekarriko du horrek.** Hala eta guztiz ere, 2017. urtearen amaierako landunen kopurua, 2008ko lehen hiruhilekoan zena baino % 8 txikiagoa izango da oraindik.


⁴ Hemen eskuragarri.

2.1 grafikoa
Nafarroa: BPGren hazkundeari egindako ekarpenak



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta (CRE)

2.2 grafikoa
Nafarroa: aurreikusitako BPGren hazkundera (UEEZ⁵)*



* 2016ko datuak aurreikuspenetan oinarritzen dira.
Iturria: BBVA Research

Gorantz jarraitzen du kontsumo pribatuak, horren indartsu ez bada ere

Kontsumo pribatua bizkortu egin zen 2015ean. Etxeko gastuan aurrera egitea eragin zuten, bai historikoki baxuak diren interes-tasei eusteak eta bai familiek eskura duten errenta hobetzeak, enplegu-sorrerak eta petrolioaren prezioa berriro jaisteak lagunduta. Zehazki, 2015. urtean Nafarroan etxeetako kontsumoa % 2,2 hazi zela adierazten du Nafarroarako zehaztutako eskualdeko kontsumoaren adierazle sintetikoak -ISCR-BBVA⁶-, agregatu nazionala % 3,1hazi zelarik (ikusi 2.3 grafikoa). Adierazle horrek autonomia-erkidegoko gastuaren adierazle partzial nagusien seinaleak biltzen ditu.

2016. urtearen bigarren erdian, gorantz jarraitu zuen kontsumoak, iazko urtearen bigarren erdian baino eritmo motelagoan bada ere. Ildo horretatik, behera egin zen lehen hiruhilekoan, bai zerbitzuen sektoreko jarduera-indizean (ZSJI) eta bai kontsumo-ondasun eta -manufakturen inportazioetan, nahiz eta joera hori aldatu bigarrean (ikusi 2.1 koadroa).


Adierazle kualitatiboagoek ere beheraldi horixe islatzen dute: zehazki, Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak txikizkako salmenten inguruan jasotako emaitzek, gainbehera erakusten dute iazko urtearen bigarren erditik. Hirugarren hiruhilekoan pittin bat gora egin arren (ikusi 2.4 grafikoa eta 1. errekoadroa), adierazle horren bilakaerak iradokitzen du kontsumoaren moteltzeak lotura izan dezakeela konfiantza galerarekin eta ziurgabetasunaren handitzearekin. Hala, muturreko erantzunen saldo garbiak negatiboa izaten jarraitzen du.

5: Urtarokotasuna eta egutegi-eraginak zuzenduta.

6: Kontsumo-adierazle sintetikoa eskualdeko gastu partzialen adierazle nagusietatik abiatuta osatzen da: txikizkako salmentak, ibilgailuen matrikulazioak, zerbitzuen sektorearen jarduera-indizea, kontsumo-ondasunen inportazioak eta barne-kontsumo nazionala. Adierazlea osatzeko metodologia osagai nagusien azterketan oinarritzen da. Informazio gehiago izateko, ikusi R.1 *¿Afecta la evolución de la demanda doméstica al crecimiento de las exportaciones?* in *Situación España, 4 Trimestre 2015*, BBVA Research.

2.3 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: kontsumo-adierazle sintetikoa ISCR-BBVA (u/u, %, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Aduanetan, Trafiko Zuzendaritza Nagusian, CORESen eta INEn oinarrituta

2.4 grafikoa

Nafarroa: txikizkako salmenten bilakaera Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (muturreko erantzunen saldoa, %)



Iturria: BBVA

2.1 koadroa

Nafarroa eta Espainia: kontsumo-adierazle nagusien bilakaera

	Ibilgailuen matrikulazioa		Txikizkako salmentak		Zerbitzuen sektoreko jardueren adierazlea		Kontsumo-ondasunen inportazioak*	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
% h/h (UEEZ)								
2014	19,3	19,9	1,5	0,9	3,5	2,7	9,6	13,7
1H15	11,0	13,2	0,5	0,7	1,3	1,6	7,5	7,7
2H15	-4,8	-2,5	-1,7	1,0	0,8	1,5	-4,5	0,2
3H15	6,0	2,2	2,1	1,2	2,0	1,0	23,0	3,9
4H15	-0,3	3,6	1,0	0,9	0,7	1,0	-6,0	-0,4
2015	19,7	22,9	2,3	3,6	4,0	4,8	14,6	12,3
1H16	3,0	4,1	0,7	0,8	-0,6	0,4	-5,4	0,7
2H16	3,2	6,6	1,7	0,5	2,1	0,2	0,3	4,6
3H16**	-3,9	-0,2	0,0	0,8	0,8	0,4	1,3	1,8
2016an metatua (u/u)	5,5	13,2	3,9	4,4	3,9	4,3	3,4	6,3

* Kontsumo-ondasun iraunkorren eta kontsumo-manufakturen inportazioak.

(**) Matrikulazioak, abuztura arteko informazioaren arabera. Txikizkako salmentak, inportazioen arloko zerbitzuen sektoreko jarduera-indizearen arabera; uztaile arteko informazioaren arabera egindako aurreikuspena.


Iturria: BBVA Research, INEn, Trafiko Zuzendaritza Nagusian eta Datacomex-en oinarrituta.

Moteltzen ari da 2015ean hasitako eskari publiko hedakorra

2015ean Nafarroako Foru Erkidegoko eskari publikoa, murriztailea izateari utzi eta, hedakor bihurtu zen, hazkundeari ekarpen positiboa eginez. 2016ko uztaila bitartean aurrekontuaren gauzatzeaz eskuragarri ditugun datuek, urtearen lehen erdian eskari publiko hedakorra izan zela baieztatzen dute. Hala, Nafarroako Gobernuaren gastu nominala kontsumoan azkartu egin zen urteko lehen hiruhilekoan, nahiz eta ordutik hazkunde horren moteltze bat igarri, bai kontsumo publikoari dagokionez bai eta, bereziki, Foru Gobernuaren inbertsioari dagokionez (ikus 2.5 eta 2.6 grafikoak).


2.5 grafikoa

Nafarroako Foru Erkidegoa: gastua azken kontsumoan. 12 hilabeteko metatua (eskualdeko BPGren % eta % u/u)



2.6 grafikoa

Nafarroako Foru Erkidegoa: kapital finkoaren erakuntza gordina. 12 hilabeteko metatua (% u/u)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta


Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

2015eko lan publikoen lizitazioaren hazkundera deuseztu egin da 2016. urtearen lehen zatian

2015ean Nafarroako erkidegoan hazi zen gehien lizitazioa. Lizitatutako obra publikoak % 98,1 gehitu zuen aurrekontua 2014koarekiko, kontraste nabarmena Espainian batez beste sumatutako murrizketarekin, % 28,3 gutxitu baita. Ildo horretatik, BPGren 1,1 puntu adierazi zuen lizitazioak (BPGren 0,9 puntu Espainian). Obra zibilen hazkunde ikaragarriari esker (% 110,1) gertatu zen gehikuntza hori, bai eta eraikuntzak izandako hazkundeari esker ere (% 48,3). Eraikuntzaren atalean, aurrekontuaren zatirik handiena etxebizitzarako eta irakaskuntzarako eraikinak altxatzera zuzendu zen. Obra zibiletan, kontu-sail handienak errepideek eta obra hidraulikoek hartu zituzten. Erakunde finantzatzaileei dagokienez, **bai estatuak eta bai lurralde-erakundeek areagotu egin dute lizitazioetako zenbatekoa** 2015ean: estatuaren kasuan, ia bortz aldiz handiagoa izan da, eta lurralde-erakundeek dagokiena, berriz, % 60,1 hazi da. Horren ondorioz, estatuaren pisua ia % 30era iritsi zen obra publikoaren lizitazioan, eta horixe izan da azken 12 urteotako ehunekorik handiena (ikus 2.7 grafikoa).


Eskura ditugun azken datuetan, 2016ko lehen zazpi hilabeteetakoak, garbi ikusten da Nafarroan lizitazioa gehiago uzkurto dela urte artean, Espainia osokoarekin alderatuta: -% 77,5 batean, eta -% 13,5 bestean. Obra zibilen lizitazioan eta eraikuntza-lanetan atzera egin izana dago horren atzean (-% 84,6 lehenengoan eta -% 32,9 bigarrean). Konparatzen hasiz gero, eraikuntzan izandako gainbehera ez dator bat Espainian batez beste sumatu den susperralditxoarekin (% 2,4). Bestalde, obra zibiletan lizitatutako zenbatekoa ere Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa izan da 2016ko lehen zazpi hilabeteen (-% 20,4), 2.8 grafikoan ikus daitekeenez. Lizitazioen murrizketa hori lurralde-erakundeek aldetik (% 69,6) eta estatu zentralaren aldetik etorri da, eta azken horretatik batez ere (-% 95,2).

2.7 grafikoa
Nafarroa: lizitazio-aurrekontua eragileko (milioi eurotan)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

2.8 grafikoa
Herri-lanak, 2016ko urtarriletik uztaiera metatuta: hazkundera (u/u, %) eta ekarpenak obra motaren arabera (p.p.)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

2015eko susperraldiaren ondoren, moteltzen ari da inbertsio pribatua

Kapital finakoaren eraketa gordina hazi egin zen Nafarroan 2015ean (% 1,3⁷ u/u), 2008tik lehen aldiz, finantzaketarako baldintzak, konfiantzak, Europako ekonomiak eta eskari-zorroa suspertzeak lagunduta. Dena den, susperraldi hori ez zen homogenea izan atal guztietan (ikus 2.9 grafikoa): ekipamendu-ondasunen inportazioak hazi egin ziren (+% 7,0 u/u), esaterako, baina bizitegiz besterako eraikuntzetarako bisatuak % 60,7 murriztu ziren (% 28,9 Espainian). Halaxe izan da hori, nahiz eta industria-erabilerako eraikinek (15 mila m², bizitegiz besterako obren bisatuei dagozkien metro koadroen herena) egonkor eutsi dioten, aurreko urtekoekin alderatuta.

Lehen seihilekoaz eskura dugun informazioaren arabera, kapital finakoaren eraketa gordinak behera egin du, eta BPGren urte arteko hazkundera 2015ean baino hamarren bat gutxiago dakarkio (+0,2 p.p.), Nafarroako Estatistika Erakundearen datuen arabera. Ekipamendu-ondasunen inportazioek azken hiru urteotan erakutsitako goraldi leunari eutsi diote, aldakortasuna gorabehera (ikusi 2.10 grafikoa); bizitegitarako ez diren eraikuntzak⁸, berriz, % 60,3 jaitsi dira urte artean (-% 19,8 Espainian), merkataritza eta biltegi, bulego eta industria-erabilerako eraikinetarako onartutako azalera atzera egin baita.


Ildo horretatik, **bilakaera hori oraindik hauskorra dela erakusten du Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak, eta arrisku handiei lotuta dagoela**; lehenaz gain, Espainiako ekonomia-politikari buruzko ziurgabetasunak edo Erresuma Batua EBtik bereizteko prozesuaren kudeaketak **areagotu egin dituzte arrisku horiek**. Hala, sektorez-sektoreko inbertsioari dagokionez, 2015. urteko bigarren hiruhilekoan goia jo ostean, halako gainbehera bat ikusten da inkestari erantzun diotenen iritzietan. 2016ko bigarren hiruhilekoan muturreko erantzunen saldo garbiak negatiboak izan ziren sektore guzti-guztietan eta, hirugarren hiruhilekoko inkesten emaitzen kasuan, zerbitzu sektoreko inbertsioan baino ez da aldatu egoera hori (ikus 2.11 grafikoa).

7: Nafarroako Estatistika Erakundeak emandako datuen arabera.

8: Maiatzera arteko datuetan oinarrituta.

2.9 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: bizitegiz besterako eraikuntzako bisatuetan (m²) eta ekipamendu-ondasunen inportazioetan 2015ean izandako aldaketak (% u/u)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en eta Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.10 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: ekipamendu-ondasunen inportazioak(1H08=100, h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomexen oinarrituta.

2.11 grafikoa

Nafarroa: inbertsioaren bilakaera, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (erantzunen saldoak, %)⁹



Iturria: BBVA

9: Laginaren hedadura mugatua denez, ezinezkoa da emaitzak urtarokotasun eta egutegi-eraginetatik zuzenduta ematea.

Nafarroako higiezinaren merkatuaren dinamismo txikiagoa

Nafarroako higiezinaren merkatuaren berrindartzea Espainiako batez bestekoa baino berantiarra izaten ari da. Etxebizitza eskariaren hazkundea Espainian batez beste izan dena baino ahulagoa da. Ondorioz, etxebizitzaren prezioak ez du bere hazkundea sendotu, are 2016ko lehen erdian iazko aurrerakadaren zati bat galdu ere egin du. Hala eta guztiz ere, eraikuntza jarduerak dinamismo handixeagoa izan du urteko lehen erdian baina, oraindik ere, maila minimoetatik hurbil dabil.

2015eko eskariaren bilakaerak aurreko urteetako prezio jaitsiera moteltzea ahalbidetu zuen. Eraikuntza jarduerak gora egin zuen gainera. Baina hobekuntza hori ahula da oraindik ere, bi faktorek islatzen dutenez: batetik, etxebizitzaren prezioaren gorakadarik eza Nafarroan eta, bestetik, etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuen geldotzea 2016ko lehen hilabeteetan.

Etxebizitzaren salmentak dinamismo txikiagoa erakutsi zuen 2015ean Nafarroan Espainia osoan baino. Zehazki, etxebizitzaren transakzioak % 2,4 hazi ziren iazko ekitaldian, 2014koekin alderatuta; Espainian, aldiz, % 9,9 hazi ziren batez beste. Aurreko urtean ez bezalako jokabidea erakusten du horrek, Nafarroan salmentak Espainiako batez bestekoaren gainetik hazi baitziren orduan (% 30,9 eta % 21,6, hurrenez hurren). Ohikoa denez, Nafarroako higiezinaren merkatua barne-eskariari lotuta dago ia erabat, eskualdean saldutako etxebizitzaren % 86,3 egoiliarrek erosi baitzituzten. Atzerritarrek erositako etxeen ehunekoa, apur bat hazi arren, askoz txikiagoa izan zen, % 5,4koa hain zuzen (Espainian, batez beste, % 17,3). Hala, egoiliarrek 2015ean egindako erosketak % 4,7 hazi ziren (Espainian % 11,0 osotara); atzerritarren erosketak % 43,8 hazi ziren (hazkunde handia da, baina, abiapuntu mailak oso txikiak direnez, atal horrek oso eragin txikia du azken emaitzan). Aldi berean, beste eskualde batzuetako egoiliarrek egindako erosketak % 27,3 murriztu ziren eta, Espainian aldiz, batez beste, egonkor eutsi zitzaion atal horri (-% 0,9).


2016ko lehen erdian salmenten dinamismoak jarraitu egin du, batez bestekoa baino erritmo apur bat motelagoan ordea. Hala, urtarrila eta ekaina bitartean, etxebizitzaren transakzioak % 1,8 hazi ziren Nafarroan. Erkidegoan bigarren hiruhilekoan barne eskariak izandako atzeraldialdiak baldintzatu du hori. Atzerritarrek egindako erosketen hazkundeak apenas izan duen eraginik, eskariaren atal horren pisu txikia medio (ikusi 2.12 grafikoa).

Bestalde, etxebizitzaren prezioak egonkor eutsi zion iazko urtean. Sustapen Ministerioaren datuen arabera, **2015. urte amaieran % 0,6 igo zen etxebizitzaren prezioa 2014koarekiko**, Espainiako % 1,1eko batez bestekoa baino apur bat gutxiago. 2016ko lehen seihilekoko datuek ez dute iazko urteko joerarik berretsi. 2016ko lehen seihilekoan, etxebizitzaren prezioa % 1,0 (h/h, UEEZ) jaitsi zen Nafarroan eta, Espainian berriz, % 0,5 (h/h) hazi zen batez beste. Urte arteko datuei erreparatuta, etxebizitzaren prezioa % 1,0 uzkurto zen eskualdean, Espainian % 2,2 (u/u) handitu zen bitartean.

Etxebizitza berrien bisatuen sinadura batez bestekoa baino gutxiago haiz zen Nafarroan 2015ean, aurreko urtean behera egin ondoren. 2014an % 20,0 atzera egin ostean, etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuen sinadura % 31,4 hazi zen iaz Nafarroan, Espainiako batez bestekoa baino 11,1 p.p. gutxiago. Aldiz, 2016an eraikuntza jarduna indartu egin da (ikusi 2.13 grafikoa): lehen zazpi hilabeteetan, Nafarroako bisatuen gorakadak Espainiako batez bestekoa gainditu du. Hala, urtarrila eta uztaila artean ia 900 etxebizitza bisatu ziren, iaz epe berean baino % 51,6 gehiago. Hazkundeak Espainiako batez bestekoa (% 31,9) gainditzen du, horrenbestez.

2.12. grafikoa


Nafarroa: etxebizitzaren salmentan urte arteko hazkundeari eragindako ekarpena (p.p.)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.13. grafikoa

Nafarroa: etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuak (UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Autoek eta ekipamendu-ondasunek moteldu egin dituzte 2015ek esportazioak, eta 2016ko susperraldia mugatzen ari dira

Nafarroan, ondasunen esportazio errealak egonkortu egin ziren 2015ean, Espainian % 3,5 hazi zirelarik, nahiz eta eskualdeko esportazio nominaletan % 3,9ko igoera izan. Espainian, hazkunderak nahiko egonkor eutsi zion baina, Nafarroan, okerragoa izan zen urteko bigarren seihilekoa (ikusi 2.14 grafikoa).

Apur bat aldekoagoak dira 2016ko datuak: seihilekoan % 4,7ko hazkundera izan da, iazko bigarren erdiarekin alderatuta. Dena den, aldakortasun handia erakusten dute datuek oraindik ere. 2016ko lehen hiruhilekoan, produktu erdi-manufakturatuek eta kontsumo-ondasunek egin zuten behera; bigarrenean, berriz, ekipamendu-ondasunak jaitsi ziren, eta, hirugarrenean¹⁰, automobilen atalak bi digituko uzkurraldia ekar diezaike nafar esportazioei. Industria-produkzioari buruzko uztailleko datuekin gertatu bezala, hilabete horretan Landabengo automobil lantegian agindutako geldialdiak izugarri murriztu zuen hilabeteko automobilen produkzioa, 500 ibilgailu baino gutxiago egin baitziren uztailan; iaz, aldiz, ia 22.300 ibilgailu egin ziren hilabete horretan bertan¹¹. Eragin hori izan ez balitz, esportazioen hazkundera izan zitekeen hiruhilekoan, ekipamendu-ondasunak lagun.


Hala, Nafarroako ondasunen esportazio-segmentu nagusiek ez dute erakusten oraindik hobekuntza sendo eta erregularrik. Ez automobilerik eta ez ekipamendu-ondasunek –salmenta nominal guztien % 70– ez dute hazkunderik izan ondoz ondoko hiru hiruhilekotan azken urteotan (ikusi 2.2 koadroa). Horri lotuta, Nafarroako esportazioetan autoek duten pisua % 45 ingurukoa da, 2008an baino 4 p.p. handiagoa. Ziurgabetasun geopolitikoa handitzeak, Erresuma Batua EBtik irteteko prozesuak eta gora bidean diren herrialdeek beren erritmoa moteltzeak eragina izan dezakete Nafarroako sektore esportatzaile garrantzitsuetan.

10: Hiruhilekoaren aurreikuspena uztailera arteko informazioan oinarrituta da.

11: http://www.diariodenavarra.es/noticias/negocios/economia/2016/09/09/la_produccion_industrial_navarra_cae_interanual_julio_484079_1033.html

2.14 grafikoa

Nafarroa eta Espainia: ondasunen esportazio errealak (1H11=100, h/h, UEEZ)



* Uztailen eskura dauden datuekin egindako balioespina. Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

2.2 koadroa

Nafarroa: esportazio nominalen hazkundeari egindako ekarpena sektoreka (% h/h, UEEZ)

Ekarpinak	Guztira	Automobilgintza	Ekipamendu-ond	Erdi-manuf.	Elikagaiak	Kontsumo iraunkorra	Gainerako ondasunak
mar. 15	5,5	0,8	-2,2	0,5	-0,4	6,9	-0,2
eka. 15	1,2	-1,6	4,2	-0,6	0,1	-0,9	-0,2
ira. 15	-7,3	4,5	-6,8	0,4	0,8	-6,3	0,2
abe. 15	2,8	1,2	1,7	0,2	-0,8	0,5	0,1
mar. 16	-5,0	-4,8	1,4	-1,1	0,2	-0,7	-0,1
eka. 16	10,4	8,4	-0,4	0,9	1,0	0,2	0,4
ira. 16	-12,9	-15,2	3,2	-0,6	0,0	0,1	-0,3
PSUA 2015	100%	43%	27%	12%	11%	5%	3%

* Uztailen eskura dauden datuekin egindako balioespina. Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Eremu geografikoei dagokienez, **EB-28 eremuak azaltzen du bai 2015eko salmenten hazkundera, baita 2016ko lehen zatiko motelaldia ere**. Izan ere, Nafarroako esportazioen % 70 biltzen du eremu horrek (ikusi 2.15 grafikoa). **Herrialdez herrialde aztertuz, Frantziara eta Alemaniara zuzendutakoek -Nafarroaren esportazioen herena dagokie- sumatutako aldakortasunaren erdia azaltzen dute**. Bestalde, *brexitak* Nafarroaren laugarren bazkide komertzialari eragiten dio, **Erresuma Batuak hartu baitzituen iaz erkidegoko kanpo salmenten % 7,3**, azken bortz urteotako antzeko ehunekoa¹². Hala ere, britainiar merkatuan ez zen hazkunderik izan 2015ean eta aurten hazkundeari 1,1 p.p. kendu dizkio. *Brexitak* sektoreka nolako eragina izan dezaken ebaluatzeko, salmenta horien % 40 inguru automobilen sektoreari dagokiola erran behar da (herena osagaietan, gainerakoa ibilgailuetan); % 30 janari eta edariei dagokie (frutak eta barazkiak batik bat, bai eta janari-prestakinak ere), eta % 15, ekipamendu-ondasunei (tresna elektrikoak eta gainerako ekipamendu-ondasunak nagusiki).


Eskualdeko ondasun errealen inportazioetan, Espainiakoen antzeko bilakaera izan dute: +% 6,2 hazi ziren iazko urtean (+% 6,0 Espainian), eta aurtengo hirugarren hiruhilekoaren itxierarako halako geldialdi bat izango dela (u/u) aurrerran daiteke (+% 3,2 Espainian; ikusi 2.16 grafikoa), nahiz eta hiruhilekoetan aldakortasun handiagoa sumatu.

Termino nominaletan % 8,6ko hazkundera (u/u) izan zen eskualdeko inportazioetan, automobilgintzaren eta produktu erdi-manufakturatuen erosketetan izandako gehikuntzaren ondorioz (3,4 eta 2,6 p.p.-eko ekarpena egin diote hazkundeari, hurrenez hurren). **Eskura diren datuek adierazten dutenez, hazkundera txikiagoa izango da inportazio nominaletan 2016ko hirugarren hiruhilekoan (+% 5,9 u/u)**: hazkunde horren 3,1 p.p. automobilgintzaren sektoreari dagozkio eta, gainerakoa berriz, ekipamendu-ondasunei eta produktu erdi-manufakturatuei, batez ere.

12: Bortz urteko batez bestekoa 311 milioi eurokoa da.

2.15 grafikoa

Nafarroa: ondasunen esportazioak helmugako herrialdearen arabera (ekarpena p.p.-tan, u/u, nominala)




* Ekainera arte metatua.

Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

2.16 grafikoa

Nafarroa eta Espainia: ondasun errealeen inportazioak (1H11=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Laburbilduz, 2015eko ondasunen kanpo-fluxuen bilakaerak 3.913 milioi euroko superabit komertziala (eskualdeko BPGren % 21,4) sortu zuen, 2014an baino apur bat txikiagoa. Hala ere, uztaile arteko datuetan, superabit komertziala % 18,7 murriztuko da (u/u), esportazioak jaitsi eta inportazioak igota.


Bidaiariak eta ostatu-gauek gora egin dute, nabarmenago atzerritarren artean

Nafarroako turismo-sektoreak bilakaera ona izan zuen, hoteletara jotzen duten bidaiariaren kopuruari dagokionez nahiz establezimenduotako ostatu-gaueko kopuruari dagokionez. 2015ean, hazkundera % 2,9koa eta % 3,4koa (u/u) izan zen, hurrenez hurren, batez besteko nazionalaren azpitik bi kasuetan (3,5 eta 1,1 p.p.); hazkunde hori azkartu egin da argitalpen hau ixterakoan ditugun datuen arabera. Hala, hirugarren hiruhilekoaren itxieran metatutako urte arteko hazkundera % 6koa izan liteke bidaiarietan, eta % 7,7koa ostatu-gauean (ikusi 2.17 grafikoa). Nafarroako Gobernuaren turismo-bulegoetan jasotako informazio-eskaerak ere % 17,1 handitu ziren iaz. Eskuragarri den errenta handitzea, konfiantza sendotzea eta petrolio-prezioen beherakadak eragin garraio-kostuen murriztea izan zituen euskarri hazkunde horrek.

2015. urtean, bidaiari atzerritarrek eta euren ostatu-gauak nabarmendu baziren, urte arteko % 7tik gorako hazkundearekin, aurten turismo nazionalaren hobekuntza ere gertatu dela diote datuek. Izan ere, eskualdera iritsitako hamar bisitaritatik zazpi espainiarrak ziren. Hala, sektorerako bereziki onuragarria izan da Espainian gertatutako barne-eskariaren eta enpleguaren hobekuntza.


Azterriko turistak jatorriari dagokionez, gehienak frantsesak izan dira (guztien laurden bat), eta turismo britainiarra merkatu igorleen arteko laugarrena da: eskualdea bisitatu duten turista atzerritarren % 8 dira, batez beste, azken bortzurtekoan (ikusi 2.18 grafikoa).

2.17 grafikoa
Nafarroa eta Espainia Bidaiarien kopurua
(mar-11=100, t/t, CVEC)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.18 grafikoa
Nafarroa: Bidaiari atzerritarren jatorria (%), 2011-2015eko batez bestekoa)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Enplegua gutxiago hazi da 2016an, zerbitzu pribatuaren ekarpen txikiagoagatik

Eskualdeko lan-merkatuak hobetzen jarraitu zuen 2016an, baina aurreko urtean baino motelago eta Espainiako batez bestekoaren azpitik. 2015ean, Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruak, batez beste, 6.000 laguneko gorakada izan zuen Nafarroan (+% 2,6 u/u) eta, enpleguari dagokionez berriz, 2.000 lanpostu inguru sortu ziren (+% 0,7 u/u), Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera. Afiliatuen kopuru hori 2007. urtetik izandako hazkunde handiena da eta erkidegoa Espainiako iparraldekoen buru kokatzen du, Aragoi, Gaztela eta Leon, Galizia, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Asturiasen gainera, nahiz eta batez besteko nazionala baino puntu portzentual erdi beherago dagoen.

Aurtengo datuek diote lan-merkatua bizitasuna galtzen ari dela. Hala, afiliazioa % 0,6 h/h hazi zen batez beste lehenengo sei hilabeteetan, eta % 0,4 h/h-ko hazkundearekin amai daiteke 2016ko hirugarren hiruhilekoa Nafarroan, Espainiako batez bestekoa baino hiru hamarren beherago. Bestalde, BAIren arabera, 6 mila lanpostu gordin galdu ziren lehen sei hilabeteetan, 2H16an % 2,5 h/h jaitsita¹³.

Sektorekako ikuspegitik, iaz eta aurtengo lehen hilabeteetan Gizarte Segurantzako afiliatuek izandako hazkundearen (UEEZ) osaera apur bat desberdinak dira Nafarroan eta Espainian. Erkidegoan manufaktura hazkundeari egindako ekarpen handiagoak ez du orekatzen zerbitzu pribatuaren gertatutako hazkunde txikiagoa: ostalaritzan, merkataritzan, garraioan, ibilgailuen konponketan eta jarduera profesionalean (ikus 2.3 koadroa). Dena den, hazkunde positiboko hamabi hiruhileko jarraian lotzea dakar. **Hala, 2H16tik 2017. urte bukaerara 10 mila enpleguko hazkundera gertatzea espero da, urtarokotasuna zuzenduta.**

13: Biztanleria Aktiboaren Inkestaren enpleguan eta Gizarte Segurantzako afiliatuen izandako hazkundeak, urte arteko terminoetan, antzekoak dira denboran eta euren korrelazioa % 0,84koa da Nafarroaren kasuan. Dena den, azken sei hiruhilekoetatik hirutan, 3 p.p.-tik gorako aldea behatu da adierazle horien urte arteko bariazioan eta, are, aurkako joera ikusi daiteke 1H15en eta 2H16ko datuetan.

2.3. koadroa

Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkundeari egindako ekarpenak (p.p. eta %, h/h, UEEZ; 2015erako, u/u)

	Nafarroa				Espainia			
	2015	1H16	2H16	3H16*	2015	1H16	2H16	3H16*
Nekazaritza	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Erauzketa ind. eta energia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufakturak	0,5	0,1	0,1	0,2	0,3	0,1	0,1	0,1
Eraikuntza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0
Merk., garraioak eta konpon.	0,4	0,1	0,1	0,1	0,6	0,2	0,1	0,1
Ostalaritza	0,3	0,1	0,0	0,1	0,4	0,1	0,1	0,1
Komun., finantzak eta higi.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0
Jarduera profes.	0,5	0,2	0,1	0,1	0,6	0,1	0,1	0,2
Zerbitzu publikoak	0,7	0,2	0,2	0,1	0,6	0,2	0,2	0,1
Gizarte-zerb. eta arte-jar.	0,1	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0
Gainerakoak (etxea barne)	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	2,6	0,6	0,7	0,4	3,2	0,8	0,8	0,7


(*)Hiruhilekoaren estimazioa, abuztura arteko datuekin.
Iturria: Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarrituta

2016ko bigarren sei hilekoko BAiren datuetan, langabezia-tasa % 13,3koa izan zen, azken bost urteetako mailarik txikiena lortuz¹⁴, batez besteko nazionala baino 6,7 p.p. beherago. Hala ere, jardueratasak 1,2 p.p. egin zuen behera, % 57,2ra arte, eta 2005. urtetik behatutako mailarik txikienean da. Urtarokotasuna zuzenduta, langabezia-tasaren beheranzko joera moteldu egin dela ikusten da (hiruhilekoren batean gorakada txikia ere izanik; ikusi 2.19 grafikoa). Horrez gain, azken urteetan lan-merkatua suspertu arren, langabezia-tasa 1H08an erregistratutakoa baino 7 p.p. handiagoa da oraindik.

Langabeziaren iraupenaren arabera osaketan, epe luzekoaren proportzioa Espainiakoarekin berdindu da, langabeen % 42,8ri eraginez (ikusi 2.20 grafikoa), hainbat urtez Nafarroak aldeko diferentziala izan ostean. Larria da ratio horren zuzenketarako gaitasun txikia: 2010etik etengabe haziz, langabezia egoeraren kronifikazioa adieraz lezake, eskualdean 17 mila laguni eragiten diena, azken BAiren arabera.

2.19 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: BAiren langabezia-tasaren bilakaera (biztanleria aktiboaren %, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.20 grafikoa

Nafarroa eta Espainia: langabezia-egoeran bi urte baino gehiago daramaten langabeak (%)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


14: 2H15eko % 12,6ko langabezia-tasaren datuak 3 p.p.-ko ez-ohiko jaitsiera neurtu zuen hiruhileko bakarrean.

Defizit publikoak iazko bilakaera bertsua dakar

Nafarroako Gobernuak eskualdeko BPGren % 1,3ko defizitarekin itxi zuen 2015. urtea, hau da, aurreko urtekoaren lau hamarren gainetik (ikusi 2.21 grafikoa), eta nabarmen egonkortasun-helburua bete gabe (-% 0,7). Foru Erkidegoko diru-sarrerak suspertu egin ziren 2015. urtean, nahiz eta PFEZaren beherapenak eragin negatiboa sortu eta aurreko urteetako Hitzarmen Ekonomikotik ondorioztatutako fluxuak eguneratu. Bestalde, 2015. urtean aurrekoan baino gastu handiagoa izan zuen Nafarroak, nagusiki, soldatapeko langileen ordainketak eta kapitalaren eraketa gordinak bultzatuta. Ondorioz, gastu primarioa 2014koa baino hiru hamarren handiagoa izan zen, BPG nominala suspertzearen eragin positiboa orekatuz (ikusi 2.22 grafikoa).


2016ra begira, aurrekontu gauzatzeari buruzko uztailera arteko datuek adierazten dute **Nafarroako Foru Erkidegoa iazkoaren antzeko bilakaera izaten ari dela**. Hala, diru-sarrerak urte hasieran galdutako dinamikasuna berreskuratzen ari dira, BEZaren diru-bilketa lagun –Gobernu Zentralarekin adostutako itzulketen egutegiaren ondorioz-. Bestalde, erkidegoko gastuek gora egiten jarraitu dute, hain handian, 2012. urtean funtzionario publikoei kendutako ordainsariaren zati baten itzulketagatik. Horren ondorioz, Nafarroako defizita BPGren -% 1,3koa izan zen uztaila amaieran, iazko uztailakoa berdinduz.

2.21 grafikoa
Nafarroako Foru Erkidegoa: finantzatzeko gaitasuna/beharra (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

2.22. grafikoa
Nafarroako Foru Erkidegoa: autonomia-erkidegoko gastu primarioari egindako ekarpenak (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

2017: moteltzea dator, baina batez besteko nazionalaren gaintik haziko da Nafarroa

Urteko lehen sei hilekoan behatutako aurrerapen-erritmoak 2016. urterako aurreikusitako hazkunde handitzeko aukera eman du (% 2,9ra, maiatzeko % 2,6rekin alderatuta¹⁵). Dena den, agertoki makroekonomiko¹⁶ eguneratuak 2017an hazkunde % 2,4ra moteltzea dakar, (aurrez % 2,8koa zen aurreikuspena). Moteltze-prozesua orokorra bada ere (hazkunde-aurreikuspena beherantz berrikusi behar izan da erkidego guztietan), nabarmenagoa izan da uneotan jarduera handiagoa dutenetan. Horrela, eskualdeen hazkundeak erakusten duen heterogeneotasuna murriztu egingo da, baina oraindik uharte eta ekialdeko erkidegoetan handiagoa izango da dinamismoa. Testuinguru horretan, **2017ra begira, Nafarroako ekonomia batez besteko nazionala baino apur bat gehiago haztea espero da.**

Hainbat faktorek bultzatu dute berrikuspen hori, eskualdeen arabera eraginak desberdin izatea arrazoituz; Nafarroaren kasua, batez bestekotik hurbil da. Alde batetik, moneta-politikak eta petrolioaren prezioek hazkunde laguntzen jarraitu arren, euren eragina gero eta txikiagoa izango da datozen hilabeteetan. Bestetik, zenbait arrisku bete dira (*brexita*), agertoki globalaren gaineko aurreikuspenak beherantz zuzendu dira, politika ekonomikoaren gaineko ziurgabetasuna nagusitu da eta zerga-politikaren joera ez da jada horren hedakorra; eta horiek guztiek moteltzea gertatuko dela adierazten dute.

Moneta-politika eta petrolioaren prezioa susperraldiaren euskarri dira, zorpetuago eta kanpora irekiago dauden erkidegoen mesede

Lehenik, **interes-tasa txikiei eusteak eta diru-politika hedakorra** egiteak kredituak eskuratzeko baldintza egokiak eskaintzen dituzte, eta finantza-karga murrizten dute. **Epe laburrean, abantaila da hori eragile zorpetuenak dituzten erkidegoetarako** eta zorpetze-maila handiarekin lan egiten duten sektoreen jarduerarako (etxebizitzaren sektoreko inbertsioa, bereziki). Alor honetan, Herri Administrazioei eta eskualdeko beste sektore egoiliar batzuei zuzendutako kreditua murriztu egin zen 2015. urtean, eskualdeko BPGren % 91,2ra; maila hori autonomia-erkidegoen batez bestekotik 20 p.p. behera dago. Beraz, hasiera batean, Nafarroa ez litzateke onura handien jasoko duten erkidegoen artean egonen. Edonola ere, interes-tasaren murrizketa handiagoen mugek (kreditu-arriskua eta ehuneko zero interes-tasa nominalaren muga) adierazten dute diru-politikaren eragin positiboa ere amaitzen ari dela.

Bigarrenik, **petrolioaren kostua txikia da oraindik azken urteetan behatutakoarekiko eta, beraz, eragin positiboa izango du aurrerantzean ere hazkunderan.** Nolanahi ere den, petrolioaren prezioaren esperotako bilakaera gorantz berrikusi da duela hilabete batzuk zegoenarekiko¹⁷, eta horrek adierazten du, ekonomiaren gain izango duen eragina ez dela aurreikusitakoa bezain positiboa izango. Hala ere, eragin horiek autonomia-erkidegoen arabera bereizi behar dira, garraio-kostuak eta ekoizpen-jardueretan energia mota hori zenbat erabiltzen den kontuan hartu behar baitira. Baldintza horiek kontuan izanda, Nafarroaren kasuan, **suspertzea 0,8 p.p. ingurukoa izan daiteke biurtekoari begira; hau da, batez besteko nazionala baino bi hamarren handiagoa** (ikusi 2.23 grafikoa).

15: BBVA Research-en Eskualdeetako Behatokiak, hemen eskuragarri: maiatza-2H16 ([hemen](#)) eta iraila-3H16 ([hemen](#))

16: Espainiako ekonomiaren agertokia aldatetaren gaineko xehetasun gehiago topa daiteke 2016ko hiruhigarren hiruhileko Situación Española, [hemen](#).

17: Adibidez, eskualdeko behatokian 2016ko bigarren hiruhilekorako behatutako petrolioaren prezioen jokabidea ([hemen](#)) kontuan hartuta, eragina 1,2 p.p.-koa izango litzateke.


Brexitaren eragin negatiboak, batez besteko nazionaletik apur bat handiagoak

Hirugarrenik, **brexitak eragin negatiboa izango du, zuzeneko nahiz zeharkako hainbat bidetatik**; eta eskualdeen arabera ere desberdina izango da eragina. Ondorio zuzenei dagokienez, ekonomia britainiarren moteltzeak eta libraren depreziazioak turismoa murriztea eragin dezakete. Halaber, biztanle britainiarrek osatutako koloniaren (milioi bat britainiar bizi dira Espainian, nagusiki Alacanten eta Murtzian) errenta iraunkorra murriztu daiteke, eta etxebizitzaren sektorean ere atzerritarren eskaera jaitsi daiteke. Bestalde, herrialde horretara zuzendutako ondasunen esportazioak ere murriztu egin daitezke. Azkenik, Erresuma Batutik iritsitako inbertsio zuzeneko fluxuek ere behera egin dezakete. Horri guztiari zeharkako ondorioak erantsi behar zaizkio, hala nola, EBko beste herrialde batzuetan gerta daitezkeen moteltzea. Beronen eragina eskualde bakoitzaren irekitze-mailaren arabera izango litzateke.

Erresuma Batua laugarren kanpo-merkatua da Nafarroarentzat: 2015. urtean, Nafarroako esportazioen % 7,3 Erresuma Batura zuzendu ziren (Espainiaren batez bestekoan lez), eta eskualdera iritsitako turista atzerritarren % 8,3 ziren hangoak; beraz, Espainiak batez beste izango duenaren antzeko eragina jasango du. Hala ere, **Nafarroa irekiagoa da, kanpo-sektore handiagoa du, beraz desabantaila erlatiboa da hori eskualdearentzat**¹⁸, **brexitak berekin ekarri dituen arriskuak kontuan hartuta.** Izan ere, zeharka, Europako merkataritza-bazkide nagusiei eragin diezaieke. **Brexitak izan ditzakeen ondorioek nahiz AEBko hazkunde-aurreikuspenen beheranzko berrikuspenak ekonomia globalaren agertokiak okerrera egitea eragin dute.** Aurreko guztiak eragin negatiboa izan dezake ondasun eta zerbitzuen esportazioetan eta, beraz, aurretik uste zena baino makalagoa izan daiteke esportazioen hazkundera.


Laburbilduz, **brexitaren ondoriozko eragin negatiboa espero da Nafarroako BPGren gainean, 4 hamarrenetik gorakoa**, hain zuzen, Espainian espero denaren gainera apur bat (ikusi 2.24 grafikoa).

2.23 grafikoa
Petrolioaren prezioaren murrizketak BPGren urteko hazkundera duen eragina (p.p., biurteko osoaren gaineko eragina)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta (CRE)

2.24 grafikoa
Brexitak AAEEn arabera duen eragina: (2017ko hazkunderaren gaineko p.p.)



Iturria: BBVA Research

18: 2015ean, ondasunen esportazioen BPGren gaineko pisua % 46,3koa izan zen, Espainiako batez bestekoa baino 25 p.p. handiagoa. Beraz, eskualdeko esportazioen % 7,3 horrek bikoiztu baino gehiago egiten du Espainiako esportazioen BPGren gaineko pisua.

Politika ekonomikoaren gaineko ziurgabetasunak hazkundera baldintzatzen du, nahiz politika hedakorrek 2016-2017 biurtekoan jarrai lezaken

Laugarrenik, politika ekonomikoaren ziurgabetasun handiak hazkundera baldintzatzen du. Zehazki, sektore pribatuan, inbertsio-proiektu batzuk edo kontsumo-ondasun iraunkorrak erosteko erabakiak atzeratzea ekar dezake horrek. Nafarroan, inbertsioak handitzen jarraitzen du, nahiz eta erritmo motelagoa izan 2016ko lehen seihilekoan; beraz, erkidegoak nahiko sendo eusten dio, beste batzuekin alderatuta. Gainera, Landabengo auto-enpresan inbertsio industrial berriak egiten ari dira¹⁹, Polo A07 autorako 2017an, nahiz beste auto baterako 2018ari begira.

Aurten ere susperraldiak Nafarroako Foru Erkidegoaren defizit publikoa murrizten laguntzea espero da. Urteko azken seihilekoan diru-sarrerak handitu eta gastuaren hedapenak ere jarraitzea aurreikusten da. Hala, **2016an Nafarroako Gobernuak defizita murriztea espero da, baina gastuen kontrola zorrotz beharko du apirilean onartutako egonkortasun-helburua betetzekotan** (BPGren -% 0,7).

2017rako, Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat aurkeztu zuen irailaren 21ean 2017rako gastu mugari buruz, eta berau % 5,5 handitzea aurreikusten du hitzarmenak. Albiste horiek iradokitzen dute, zorpetze erlatibo txikiago batetik abiatuta (ikus 2.25 grafikoa), **Nafarroak 2015. eta 2016. urteetako politika hedakorrei eutsiko diela.** Edozein modutan ere, eta foru-erregimenak ematen duen autonomiatik harago, **Espanian erabakiak hartzeko orduan gertatutako atzerapenak arriskua dakarkio erkidegoari.**

Nafarroa batez bestekoaren gaintik haziko da 2017an, eta 10 mila enplegu sortuko dira 2016ko bigarren hiruhilekoaren eta 2017. urte amaieraren artean

Hazkunderaren sendotasunari eutsiko zaio urteko lehen seihilekoan, kontsumo pribatua lagun, eta **horrek 2016an Nafarroako BPGren hazkundera gorantz berrikustea dakar, % 2,9ra arte.** Dena den, zalantzan dago eskualdearen suspertzearen sendotasuna, hainbat arrazoiengatik: inbertsioak hazkundera txikiagoa izan du, eskari globalak behera egin du, eta *brexita*ren ondorioak ere hor daude; horrez gain, kontuan izan behar dira politika ekonomikoaren ziurgabetasuna eta zerga-doikuntzarekin aurrera jarraitu beharra. Horregatik guztiagatik, 2017an ekonomia moteltzea espero da baina, hala ere, Nafarroak % 2,4 inguruko hazkundera izango du, Espainiako batez bestekoaren gaintik (% 2,3). **Horrekin, enplegu-maila 10 mila pertsonatan handituko da 2016ko bigarren hiruhilekotik 2017 amaierara**²⁰ (ikus 2.26 grafikoa), eta langabezia-tasa % 11 ingurura arte murriztuko da. Hala eta guztiz ere, aurrerapen hori ez da nahikoa, eskualdeko enplegu-maila 2008an lortutako maila baino % 8 beherago kokatuko baita, langabezia-tasa ia 7 p.p. handiagoa izango da eta biztanleko BPG % 0,9 ttipiagoa.

Beraz, Nafarroak aurreko aldizkarietan planteatutako erronka berak ditu: langabezia-tasa eta iraupen luzeko langabezia murriztu, lanaren batez besteko produktibitatea handitu, jarduera-tasa igo eta giza kapitala hobetzea. Alderdi horiek guztiek hobera egin behar dute, Europako eskualde nagusien mailara iristeko. Nafarroak kanpo-sektorean irekitasun-maila handia duen arren (BPGren gaineko esportazioen ratioan), sektore-kontzentrazio handia du (% 45 automozioa baita). Horrez gain, enpresa txikien ehunekoa Espainiako eskualde gehienetan dutena baino txikiagoa den arren, **enpresa esportatzaileen kopurua Espainiako batez bestekoa baino apur bat handiagoa baino ez da** (ikus 2.27 grafikoa).


Bestalde, hurrengo urteari begirako aurreikuspenak alde batera utzita (ikus 2.28 grafikoa), azken bi urteetan **I+D arlora bideratutako gastuaren murrizketa ere kezagarria da;** iaz, adibidez, BPGren % 1,75ekoa izan zen. Horren ondorioz, 2016ko RISen sailkapenean²¹, "berritzaile sendoa" izatetik "berritzaile neurritsua" izatera igaro da erkidegoa.

19: <http://www.economista.es/ecomotor/motor/noticias/7824211/09/16/Economia-Motor-Volkswagen-Navarra-realiza-208-trabajos-durante-la-parada-de-julio-con-una-inversion-de-289-millones.html>

²⁰ 4 mila enplegu biurtekoan, aurtengo lehen seihilekoan BAiren 6 mila enplegu galdu ostean.


21: http://ec.europa.eu/growth/industry/innovation/facts-figures/regional_en

2.25 grafikoa
Defizit eta zor autonomikoak
(eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta (CRE)

2.26 grafikoa
Nafarroa: landunak (BAI) eta aurreikuspenak
(milakotan)




Iturria: BBVA Research

2.27 grafikoa
Mikroenpresak 2014ko enpresa guztiekiko, eta enpresa esportatzaileen kopurua mila biztanleko



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.28 grafikoa
Nafarroa, Espainia eta EDB: BPGren hazkundera
(h/h; %)



Iturria: BBVA Research

2.4.koadroa

BPGren hazkundera autonomia-erkidegoetan (%)

	2013	2014	2015	2016	2017
Andaluzia	-1,9	1,0	3,2	2,9	2,4
Aragoi	0,0	1,4	2,7	3,4	2,4
Asturias	-3,6	0,5	3,1	2,6	1,8
Balearrak	-1,6	1,2	3,2	3,7	2,7
Kanariak	-0,8	1,7	2,8	3,2	2,3
Kantabria	-3,7	1,0	2,6	2,5	2,2
Gaztela eta Leon	-2,6	1,0	2,9	2,7	2,0
Gaztela-Mantxa	-0,4	0,3	3,2	3,3	2,4
Katalunia	-1,4	1,6	3,3	3,3	2,2
Extremadura	-0,8	1,3	3,0	2,8	1,9
Galizia	-1,6	0,4	3,2	2,7	1,7
Madril	-1,9	1,6	3,4	3,5	2,6
Murtzia	-1,2	1,8	3,1	3,4	2,2
Nafarroa	-1,4	1,6	2,9	2,9	2,4
Euskadi	-2,7	1,3	3,1	2,5	2,1
Errioxa	-2,7	2,0	2,8	3,2	2,6
Valentzia	-1,3	1,9	3,6	3,3	2,2
Espainia	-1,7	1,4	3,2	3,1	2,3

Data: 2016ko abuztua
Iturria: BBVA Research eta INE

1. errekoadroa. Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2016ko hirugarren hiruhilekoa

2016ko hirugarren hiruhileko²² Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek ekonomia egonkortzen ari dela adierazten dute. **2016ko hirugarren hiruhilekoaren amaiera aldera jasotako datuak aurreko hiruhilekoari dagozkion datuak baino apur bat hobeto dira, baina zalantza sortzen dute** oraindik Nafarroako ekonomiaren portaeraren inguruan. Alde batetik, inkestari erantzun dioten hamar lagunetatik seik jarduera ekonomikoa egonkorra izango dela aurreikusi dute. Bestetik, aurreko datuak negatiboak baziren ere, une horretako hiruhilekoari buruzko erantzunen saldo garbia²³ ia baliogabea da; eta, hurrengo hiruhilekoari dagokionez, joera positiboa hartzen du.

Emaitza horiek, beraz, hautsi egiten dute aurreko lau hiruhilekoetan eragileen konfiantzan ikusitako gainbehera, 2015eko bigarren hiruhilekoko maximoetatik lehen aldiz. Dena den, urteko bigarren hiruhilekoarekiko hobekuntza gertatu arren, ez dugu ahaztu behar duela urtebeteko datuak baino okerragoak direla nabarmenki. Okerrerako joera horren arrazoiak erreferendum britainiarraren emaitza eta Espainian hauteskunde orokorrak errepikatzea izan daitezke; hala ere, esan behar da Nafarroako ekonomia batez besteko historikoaren gainetik hazi dela.

Inkestari erantzun diotenen artean, % 16k soilik uste du hiruhileko horretan jarduerak gora egin duela (% 17k kontrakoa adierazi zuen), eta ia laurden batek uste du hobekuntza hurrengo hiruhilekoan gertatuko dela (urritik abendura). Horren aurrean, % 38k eta % 31k, hurrenez hurren, hedapen ekonomikoa gertatuko zela aurreikusi zuten duela urtebete. Hala, 3H16ko emaitzak ez dira iristen R.1.1 grafikoaren goiko eta eskuineko aldera.

Sektoreen ikuspegitik, turismoarekin lotutakoak izan dira emaitzarik onenak (saldo garbi positiboaren % 54), aurreko hiruhilekoarekiko 39 p.p. hobetu baitu bere saldo

garbia, sektore horrek erkidegoan izan dituen kopuru onenetara iritsiz.

Hala ere, **ez da hobekuntzarik hauteman ia enpleguaren inguruko ikuspegiari**: zerbitzuen sektorearen kasuan, muturreko erantzun gehiago daude, baina saldo garbia hobetu gabe; eta eraikuntzaren sektoreko enpleguari dagokionez, erantzunek txarrera egin dute. Industriako enpleguaren kasuan baino ez dira hobetu erantzunak, baina horien saldo garbia baliogabea da hiruhilekoan. Bestalde, **esportazioek saldo garbi negatiboa dute (% 6)**, aurreko hiruhilekoan bezalatsu, baina hamarretik zazpiik soilik aurreikusten dute egonkor jarraituko dutela.

Turismoaren kasuan izan ezik, **gainerako adierazle partzialek ez dute bi digituko saldo garbi positiborik lortzen**. Aitzitik, alde negatiboan maila horretara iristen dira bai stocken maila (-% 10) bai eraikuntzaren esparruko enplegua (-% 17). **Hala ere, adierazle gehienek saldo garbiak hobera egin du**, baina apur bat txikiagoa da adierazle bakoitzean egonkortasuna ikusten dutenen ehunekoa (ikus R.1.1 koadroa). Halaxe gertatzen da inbertsioaren adierazleekin, eta zerbitzuenak soilik lortzen du saldo garbi positiboa (+% 8, ikusi R.1.2 grafikoa).

Laburtuz, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek **hobekuntza arina erakusten dute hiruhilekoko adierazleetan**, 2015eko bigarren hiruhilekoan maila gorena lortu ondoren, beharrezko joera baitzuten aurreko hiruhilekora arte. **Muturreko erantzunek gora egin dute, eta ez da isla argirik ikusten enpleguari, inbertsoari edo esportazioei dagozkien adierazleetan**.

Hala, pentsa daiteke barne-ekonomiaren portaeraren inertziak eta turismoaren portaera onak Nafarroako ekonomiaren hazkundera egonkortzea erraz dezaketela, ziurgabetasuna handia bada ere.

20: Laginaren luzerak (26 hiruhileko) ez du aukerarik ematen urtarokotasuna eta egutegi-eraginak zuzentzeko, eta, beraz, lortutako seinaleak urtarokotasun-osagaien bat ere izan dezake barnean.

21: Muturreko erantzunen saldo garbia lortzeko, jarduera ekonomikoak gorantz egin zuela uste duten erabiltzaileen erantzunen ehunekoari beherantz egin zuela uste dutenen ehunekoa kentzen zaio.

E.1.1 grafikoa


BBVA Inkesta Nafarroan: jarduera ekonomikoaren bilakaera eta espektatibak. Erantzunen saldo garbiak (%)



Iturria: BBVA Research

E.1.2 grafikoa

BBVA Inkesta Nafarroan: aukeraturako aldagaiak. Erantzunen saldo garbiak (%)



Iturria: BBVA Research

E.1.1 koadroa

Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta. Emaizta orokorrak (%)

	2016ko hirugarren hiru-hilekoa				2016ko bigarren hiru-hilekoa				2015eko hirugarren hiru-hilekoa			
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*
Jarduera ekonomiko	18	61	21	-3	5	57	38	-33	38	53	9	28
Hurrengo hiru-hilekorako aurreikuspena	37	32	32	5	9	67	24	-16	31	69	0	31
Industria-ekoizpena	34	45	21	13	5	71	24	-19	6	94	0	6
Eskari-zorroa	34	45	21	13	5	67	28	-22	25	75	0	25
Stock mailak	8	71	21	-13	5	81	14	-9	11	89	0	11
Lehen sektoreko inbertsioa	16	63	21	-5	9	71	21	-12	13	78	9	3
Industriako inbertsioa	26	53	21	5	0	83	17	-17	22	78	0	22
Zerbitzuetako inbertsioa	42	32	26	16	16	62	22	-7	31	69	0	31
Eraikuntza berriak	16	63	21	-5	5	74	21	-16	30	70	0	30
Industriako enplegua	26	53	21	5	10	67	22	-12	8	92	0	8
Zerbitzuetako enplegua	42	32	26	16	16	67	17	-2	31	69	0	31
Eraikuntzako enplegua	16	63	21	-5	5	81	14	-9	36	59	5	31
Prezioak	0	89	11	-11	0	84	16	-16	5	89	6	-2
Salmentak	18	47	34	-16	16	53	31	-16	34	66	0	34
Turismoa	61	18	21	39	29	52	19	10	44	56	0	44
Esportazioak	39	39	21	18	5	81	14	-9	11	89	0	11

(*) Muturreko erantzunen saldoa.

Iturria: BBVA

2. errekoadroa. Eragiten al dio barne-eskariaren bilakaerak Nafarroako esportazioen hazkunderari?²²

Kanpoko salmenten garrantzia handitu egin zen krisia lehertu eta barne-merkatuak hondoratu ondoren. Azkeneko atzeraldian, ekonomia espainiarrean kanpoko eskari garbiak hazkunderari egindako ekarpen positiborik ezean, behatutakoa baino 9 puntu portzentual handiagoa zatekeen BPGren erorikoa. Testuinguru horretan, ondasunen esportazioek gero eta garrantzi handiagoa dute Espainiako ekonomian, BPG nominalaren % 23ra artekoa, hau da, 2009an zuten pisua baino 8 p.p. gehiago. **Nafarroari dagokionez, BPGren gaineko esportazioen ratioa % 45etik gorakoa da, azken bost urteetan 16 p.p. handitu ondoren.**

Azterlan ugariren arabera, ohikoan aztertzen diren faktore eragileen bilakaera, hala nola mundu-mailako eskariaren eta kanbio-tasa erreal efektiboaren bilakaera, ez dira nahikoak EDBko ekonomietan esportazioek azken aldiandako hedapena azaltzeko, hazkunde globalaren moteltzea gertatu baita eta kanbio-tasa nominalak finkoak izan baitira merkataritza-bazkide nagusien aurrean.

Zerk azaltzen du ondasunen esportazioek azkeneko atzeraldian izandako bilakaera?

Errekoadro honetan, ondasunen esportazioen faktore erabakigarrien azterketatik Nafarroarako ateratako ondorio nagusiak laburtu dira, eta panel-datuaren eredu dinamiko bat erabili da Espainiako autonomia-erkidegoetarako. Honela labur daitezke emaitzak:


- 1. Esportazioek positiboki erantzuten diete merkataritza-bazkide nagusien eskari-aldaketei, eta negatiboki kanbio-tasa erreal efektiboaren balio-handitzei.**
- 2. Badirudi barne-kontsumoak ordezkatzeko efektua sortzen duela kanpoko salmenten gain, eta horrek barneko nahiz atzerriko**

merkatuen arteko baliabideak berriro esleitzea sustatzen du.

- 3. Argi geratu da barne-eskariaren hazkunderaren eta kanpoko salmenten hazkunderaren arteko erlazioa asimetrikoa dela. Barneko merkatuaren jaitsierek soilik izan dute eragin esanguratsua jarduera esportatzailean, salmenten berrorientatzea sustatu eta enpresek nazioartekotze-kostuak errazago onartu dituztelako.**
- 4. Barne-kontsumoaren uzkuertzeak Nafarroako esportazioak 3 p.p.. handitu zituen 2010etik 2013ra bitartean, eta horrek azaltzen du kanpoko salmentek izandako % 35eko hazkundera. Aitzitik, 2014. urtetik aurrera barne-eskariak izandako suspertzeak ez zuen eragin esanguratsu handirik izan esportazio-jardueran (ikusi E.2.1 grafikoa).**

E 2.1 grafikoa

Nafarroa: ondasunen esportazio ez-energetikoek hazkunde errealari egindako ekarpenak (urteko batez bestekoa, %)



Iturria: BBVA Research

22: Azterlan honi buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi 2015eko laugarren hiruhilekoari buruzko *Situación España* aldizkari 1. errekoadroa, hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana-cuarto-trimestre-de-2015/capitulo/r1-afecta-la-evolucion-de-la-demanda-domestica-al-crecimiento-de-las-exportaciones/>

E.2.1 koadroa

AAEE: ondasun-espertazioen hazkundearen faktore erabakigarrien estimazioak (1H1997-1H2015)

	Estimazio tradizionala		Estimazio tradizionala + Kontsumoa		Estimazio tradizionala + Konts. asimetrikoa	
	Koef.	P-balioa	Koef.	P-balioa	Koef.	P-balioa
Epe luzeko erlazioa						
Atzerriko eskaria	0,954	0,000	0,972	0,000	0,976	0,000
Lehiakortasuna	-0,351	0,003	-0,408	0,000	-0,463	0,000
Epe laburreko erlazioa						
Konbergentzia-koefizientea orek.	-0,368	0,000	-0,403	0,000	-0,390	0,000
Δ Atzerriko eskaria	2,234	0,000	2,577	0,000	2,705	0,000
Δ Lehiakortasuna	-0,005	0,180	-0,006	0,148	-0,005	0,194
Δ Barne-kontsumoa			-0,579	0,082		
Δ Barne-kontsumoa ⁺					-0,133	0,826
Δ Barne-kontsumoa ⁻					1,076	0,021
Log Likelihood	1195,3		1209,3		1222,8	
Ikuskatzeen # (NxT)				1241		

(*) Ikurra aldatu da: "Barne-kontsumoa⁻", errazago interpretatzeko
Iturria: BBVA Research eta INE

3 Espainiako eta espainiar eskualdeetako biztanleen hezkuntza-maila: 1960-2011. Nafarroaren kasua

Ángel de la Fuente²⁵ - FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC.) 2016ko apirila

1. Sarrera

Duela gutxi egindako bi lanetan, **de la Fuentek eta Doménech-ek (D&D, 2014 eta 2015) biztanle helduen hezkuntza-mailari buruzko serieak eraiki dituzte, OCDEko 21 herrialderen multzorako eta Espainiaren eta espainiar eskualdeen kasurako, oinarritzat 1960-2011 denboraldia hartuta.** Xede horretarako, biztanle-erroldek eta beste iturri batzuek eskaintzen duten informazioa erabili dute. Atal honetan, Nafarroako erkidegorako ateratako ondorio nagusiak laburbildu dira.

Lanean, n mailako ikasketak dituzten 25 urteko edo hortik gorako biztanleen (25+ biztanleak hemendik aurrera) L_n frakzioa kalkulatu dute egileek. Hauek dira kontuan hartu diren hezkuntza-mailak: eskolagabeak (L_0), lehen hezkuntza (L_1), bigarren hezkuntzako bi zikloak ($L_{2.1}$ eta $L_{2.2}$), eta goi-prestakuntzako lehen bi zikloak ($L_{3.1}$ eta $L_{3.2}$). Oro har, hauxe da L_n : n hezkuntza-maila osatu duten biztanleen frakzioa, baina horren goitik hurrena duen maila osatu ez duena. L_1 da salbuespena, irakurtzen eta idazten dakiten baina bigarren hezkuntzako lehen zikloa osatu ez duten guztiak sartzen baitira maila horretan. Talde horretako gehienek lehen hezkuntzako ikasketak dituzte soilik baina, ziurrenik, erabat osatu gabe; dena den, horietako batzuek irakurtzen eta idazteko ikasi dute, baina eskolatzeko formalik izan gabe, eta beste batzuk bigarren hezkuntzako lehen zikloa hasitakoak izango dira, baina berau osatu gabe.

Biztanleak hezkuntza-mailaren eta ikasketa horien iraupen teorikoaren arabera sailkatuz, biztanle helduen batez besteko eskolatzeko-urteen serieak ere atera dira. Aldagai interesgarriok Espainia osorako eta OCDEko beste herrialdeetarako atera dira lehenengo, eta, ondoren, espainiar eskualdeetakoak atera dira, hamazazpi autonomia-erkidegoei erantsitako eskualde gehigarritzat hartuta Ceuta eta Melilla.


Aintzat hartu ditugun hezkuntza-mailetara iritsi diren espainiar biztanleen bilakaera erakusten du 3.1 grafikoak. Izugarriko aldaketak izan dira aztergai hartutako mende erdian, biztanleriaren hezkuntza-egituran. 1960an, Espainiako biztanle helduen % 15ek ez zekien ez irakurtzen eta ez idazten; % 94 ez zen iritsi lehen mailako eskolatik harantzago, eta goi-mailako prestakuntzaren bat zutenak % 3 baino gutxiago ziren. Mendi erdia pasatu eta gero esan daiteke desagertua dela analfabetismoa, % 70ek baino gehiagok baduela bigarren hezkuntza-motaren bat, eta % 20 inguruk goi-mailako hezkuntzara jo ahal izan duela. Horren guztiaren ondorioz, biztanle helduen batez besteko eskolatzeko-urteen zenbatekoa 4,70etik 9,79ra igaro da aztergai dugun garai horretan.

2. Nafarroaren kasua

3.2. grafikotik 3.5era bitartekoek Nafarroako biztanleriaren hezkuntza-mailak azken mende erdian izandako bilakaera laburbiltzen dute, erreferentziatzat Espainiako batez bestekoa eta autonomia-erkidegoetako adierazle bakoitzeko balio minimoak eta maximoak hartuta..


25: Eskerrak eman nahi dizkiot Pep Ruizi, egindako iruzkin eta iradokizunengatik.

3.1 grafikoa
Espainiako 25+ biztanleen frakzioa, hezkuntza-maila bakoitzean



Iturria: A. de la Fuente


3.2 grafikoa
Hezkuntza-maila bakoitzera iritsi den Nafarroako 25+ biztanleriaren zatia



Iturria: A. de la Fuente


3.1 eta 3.2 grafikoa konparatzen baditugu, ikusiko dugu Nafarroako biztanleek hezkuntzan izan duten bilakaera Espainiakoaren antzekoa dela, nahiz eta aldekoagoa duen hasierako posizio batetik abiatu: analfabetismo-maila nahiko baxuak ditu, eta bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen multzo handi samarra (baina ez goi-mailakoak). 3.3 grafikotik 3.5era bitartekoek erakusten dute, gainerakoekin alderatuta, Nafarroak erakusten duen egoera hobeari eutsi egiten zaiola aztergai hartutako garai guztian zehar, nahiz eta beheranzko joera apal bat ere nabari den. Batez besteko eskolatzeko-urteei dagokienez, 7 puntu galdu zituen Nafarroako Foru Erkidegoak 1950etik 2011ra, eta estatuko batez bestekoarekiko (100), 111ko indizea izatetik 104ra iragan zen garai horren amaieran.

3.3 grafikoa
Nafarroa Espainian; Bigarren hezkuntzako prestakuntza apur bat (L2.1+L2.2) baino unibertsitateko prestakuntzarik ez duen 25+ biztanleriaren ehunekoa




Iturria: A. de la Fuente

3.4 grafikoa
Nafarroa Espainian; Unibertsitate-hezkuntza apur bat (L3.1+) duen 25+ biztanleriaren ehunekoa



Iturria: A. de la Fuente

3.5 grafikoa

Nafarroa Espainian; batez besteko prestakuntza-urteak

Iturria: A. de la Fuente

Erreferentziak

de la Fuente, A. eta A. Ciccone (2003). *Human capital in a global and knowledge-based economy*. Comisión Europea, DG for Employment and Social Affairs. Office for official publications of the European Communities, Luxembourg.

de la Fuente, A. eta R. Doménech (2014). "Educational attainment in the OECD, 1960-2010, version 3.1." FEDEA, laneko dokumentua 2014-14.

<https://ideas.repec.org/p/fda/fdaddt/2014-14.html>

de la Fuente, A. eta R. Doménech (2015). "El nivel educativo de la población en España y sus regiones: 1960-2011. (RegDatEdu_v40_1960_2011)." FEDEA, Estudios sobre Economía Española no. 2015-05 zk.

<https://ideas.repec.org/p/fda/fdaeee/eee2015-05.html>

4 Taulak

4.1 koadroa

Nafarroako ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak (%)

	2015		Batazbesteko hazkundea urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, ueez)		Azken hilabetea
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	
Txikizkako salmentak	2,3	3,6	4,3	4,5	0,8	-0,6	Abu-16
Matrikulazioak	19,7	22,9	5,2	13,4	4,7	-3,0	Abu-16
ZSJI (IASS)	4,0	4,8	3,4	3,8	0,4	0,2	Uzt-16
Bidaieri egoiliarrek (1)	0,1	6,4	7,0	4,4	-0,4	-1,5	Abu-16
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	1,9	5,3	8,9	3,8	0,1	-1,8	Abu-16
IPI							
Etxebizitza bisatuak	2,3	3,3	-2,6	1,7	-13,9	0,3	Uzt-16
Etxebizitza salerosketak	31,4	42,9	54,7	40,4	-68,6	-36,4	Jun-16
Esportazio Errealak (2)	-1,1	10,9	11,4	17,4	2,3	2,8	Uzt-16
Inportazioak							
Bidaieri Atzerritarrek (3)	-0,3	3,4	-4,8	2,9	-7,1	0,8	Uzt-16
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	4,8	6,0	0,2	2,5	-9,5	0,2	Uzt-16
Afiliazioa SSn	10,4	5,9	5,2	9,8	-1,6	-0,5	Abu-16
Langabezia Erregistratua	8,3	3,9	4,6	10,1	-3,5	0,6	Abu-16

(1) Espainiako Egoiliarrek (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarrek ez direnak
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

4.2 koadroa

EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (u/u) (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontrakorik adierazi ezean)

	2013	2014	2015	2016	2017
BPG prezio konstanteetan	-0,3	0,9	1,6	1,6	1,5
Kontsumo pribatua	-0,6	0,8	1,7	1,7	1,4
Kontsumo publikoa	0,2	0,8	1,3	1,5	1,1
Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	-2,5	1,3	2,7	3,0	2,7
Izakinak (*)	0,1	0,0	-0,1	0,2	0,0
Barne eskaria (*)	-0,7	0,9	1,7	2,0	1,5
Esportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	2,2	4,1	5,1	2,9	3,0
Inportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	1,3	4,5	5,9	4,1	3,4
Kanpo eskaria (*)	0,4	0,0	-0,1	-0,4	-0,1
Prezioak					
KPI	1,4	0,4	0,0	0,2	1,4
Azpiko KPI	1,3	0,9	0,8	0,8	1,3
Lan Merkatua					
Enplegua	-0,6	0,6	1,1	1,2	0,8
Langabezia tasa (bizt.akt. %)	12,0	11,6	10,9	10,1	9,8
Sektore publikoa					
Defizita (BPGren %)	-3,0	-2,6	-2,1	-2,0	-1,9
Zorra (BPGren %)	91,1	92,0	90,7	90,5	89,1
Kanpo sektorea					
Kontu korrante saldoa (BPGren %)	2,1	2,5	3,2	3,2	3,0

Aurreikuspenak dira atzea zuria ez dutenak. (*) hazkundeari egindako ekarpena
Aurreikuspenen itxiera-data: 2016ko abuztuak 5.
Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

4.3 koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

Urteko batez bestekoa, %	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Estatu Batuak	2,2	1,5	2,4	2,4	2,0	2,1
EDB	-0,9	-0,2	0,9	1,6	1,6	1,5
Alemania	0,6	0,4	1,6	1,4	1,4	1,5
Frantzia	0,2	0,7	0,2	1,2	1,5	1,4
Italia	-2,8	-1,8	-0,3	0,6	1,0	1,1
Espainia	-2,6	-1,7	1,4	3,2	3,1	2,3
Erresuma Batua	1,2	1,9	3,1	2,2	1,5	0,4
Latinoamerika *	2,9	2,7	0,6	-0,4	-0,9	1,8
Mexiko	4,0	1,3	2,3	2,5	2,6	2,6
Brasil	1,9	3,0	0,1	-3,9	-3,0	0,9
EAGLES **	5,8	5,6	5,2	4,5	4,7	4,8
Turkia	2,1	4,2	3,0	4,0	3,9	3,9
Asia-Ozeano Barea	5,8	5,9	5,6	5,5	5,3	5,1
Japonia	1,7	1,4	0,0	0,5	0,5	0,6
Txina	7,7	7,7	7,3	6,9	6,4	5,7
Asia (Txina gabe)	4,3	4,4	4,3	4,3	4,4	4,5
Mundua	3,4	3,3	3,4	3,1	3,1	3,2

(a): aurreikuspena

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

** Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Tailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2016ko abuztuak 5.

Iturria: BBVA Research eta NDF

4.4 koadroa

Zor publikoaren 10 urterako interes tasa

(%, urteko batez bestekoa)	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Estatu Batuak	1,79	2,34	2,53	2,14	1,72	1,86
Alemania	1,57	1,63	1,25	0,63	0,06	0,20

Aurreikuspenen itxiera-data: 2016eko abuztuak 5.

Iturria: BBVA Research eta NDF

4.5 koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: kanbio tasak

(Urteko batez bestekoa)	2012	2013	2014	2015	2016	2017
USD-EUR	0,78	0,75	0,75	0,90	0,91	0,90
EUR-USD	1,29	1,33	1,33	1,11	1,10	1,11
GBP-USD	1,59	1,56	1,65	1,53	1,34	1,30
USD-JPY	79,77	97,45	105,82	121,07	106,27	111,25
USD-CNY	6,31	6,20	6,14	6,23	6,66	6,99

Aurreikuspenen itxiera-data: 2016eko abuztuak 5.

Iturria: BBVA Research eta NDF

4.6 koadroa

Spainia: aurreikuspen makroekonomikoak (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2013	2014	2015	2016 (a)	2017 (a)
Jarduera					
BPG erreala	-1,7	1,4	3,2	2,7	2,7
Kontsumo pribatua	-3,1	1,2	3,1	2,6	2,4
Kontsumo publikoa	-2,8	0,0	2,7	1,6	1,8
Kapital eraketa gordina	-3,6	4,8	7,0	3,6	4,5
Ekipoak eta makineria	4,0	10,6	10,2	5,5	4,7
Eraikuntza	-7,1	-0,2	5,3	3,1	4,1
Etxebizitza	-7,2	-1,4	2,4	2,8	4,4
Barne-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	-3,1	1,6	3,7	2,6	2,6
Esportazioak	4,3	5,1	5,4	4,4	5,6
Inportazioak	-0,3	6,4	7,5	4,4	6,0
Kanpo-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	1,4	-0,2	-0,5	0,1	0,0
BPG nominala	-1,1	1,0	3,8	3,6	4,9
(Mila milioi euro)	1031,3	1041,2	1081,2	1120,3	1175,5
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	-1,4	1,5	3,2	2,7	2,6
BPG, eraikuntza gabe	-1,0	1,5	3,0	2,7	2,5
Lan merkatua					
Enplegua, BAI (EPA)	-2,8	1,2	3,0	2,8	2,5
Langabezia tasa (biztanleria aktiboaren %)	26,1	24,4	22,1	19,8	18,5
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	-3,3	1,1	3,0	2,4	2,2
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	1,6	0,3	0,2	0,3	0,4
Prezio eta kostuak					
KPI (urteko batez bestekoa)	1,4	-0,2	-0,5	-0,3	1,7
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	0,3	-1,0	0,0	0,6	1,3
BPGren deflatorea	0,6	-0,4	0,6	0,9	2,2
Soldatapekoen ordainsaria	1,7	-0,6	0,5	1,8	1,1
Unitateko lan-kostua	0,2	-0,8	0,3	1,5	0,7
Kanpo-sektorea					
Kontu korrante balantza (BPGren %)	1,5	1,0	1,4	2,1	2,5
Sektore publikoa					
Zorra (BPGren %)	93,7	99,3	99,2	99,6	98,4
Herri Administrazioen saldoa (BPGren saldoa) (*)	-6,6	-5,8	-5,0	-3,9	-2,9
Etxeak					
Errenta nominal eskuragarria	-0,8	0,9	2,3	3,6	3,3
Aurrezki tasa (errenta nominalaren %)	10,2	9,8	9,6	10,6	9,8

Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean.

(a): aurreikuspena

 Aurreikuspenen itxiera **data: 2016eko maiatzak 6**

(*): Espainiako finantza erakundeei emaniko laguntzak kenduta.

Iturria: BBVA Research

LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoaren bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

Ekonomia Garatueterako ekonomialari burua

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com
+34 91 537 36 72

Spainia

Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com
+34 91 374 39 61
Ignacio Archondo
ignacio.archondo@bbva.com
+34 91 757 52 78
Joseba Barandiaran
joseba.barandiaran@bbva.com
+34 94 487 67 39
Álvaro Flores
alvaro.flores.alonso@bbva.com
+34 91 757 52 78

Juan Ramón García
juanramon.gi@bbva.com
+34 91 374 33 39
Félix Lores
felix.lores@bbva.com
+34 91 374 01 82
Antonio Marín
antonio.marin.campos@bbva.com
+34 648 600 596
Myriam Montañez
Miriam.montanez@bbva.com
+34 638 80 85 04

Matías José Pacce
matias.pacce@bbva.com
+34 647 392 673
Virginia Pou
virginia.pou@bbva.com
+34 91 537 77 23
Juan Ruiz
juan.ruiz2@bbva.com
+34 646 825 405

Pep Ruiz
ruiz.aguirre@bbva.com
+34 91 537 55 67
Camilo Andrés Ulloa
camiloandres.ulloa@bbva.com
+34 91 537 84 73

BBVA Research**Taldeko Ekonomialari Burua**

Jorge Sicilia Serrano

Garatutako Ekonomiak

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com

Spainia

Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com

Europa

Miguel Jiménez
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp
Nathaniel.Karp@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomiak*Garatze bidean diren Ekonomien Zeharkako Análisis*

Álvaro Ortiz
alvaro.ortiz@bbva.com

Asia

Le Xia
le.xia@bbva.com

Mexiko

Carlos Serrano
carlos.serranoh@bbva.com

Turkia

Álvaro Ortiz
alvaro.ortiz@bbva.com

Latam koordinazioa

Juan Manuel Ruiz
juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile

Jorge Selaive
jselaive@bbva.com

Kolonbia

Juana Téllez
juana.tellez@bbva.com

Peru

Hugo Perea
hperea@bbva.com

Venezuela

Julio Pineda
juliocesar.pineda@bbva.com

Finantza Sistemak eta Araudia

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@bbva.com

Finantza Sistemak

Ana Rubio
arubiog@bbva.com

Finantza Barneraketa

David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak

María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Araudia digital

Álvaro Martín
alvaro.martin@bbva.com

Arlu Globalak*Inguru Ekonomikoak*

Julián Cubero
juan.cubero@bbva.com

Finantza Inguruak

Sonsoles Castillo
s.castillo@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas
oscar.delaspenas@bbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research

Calle Azul, 4
Edificio de la Vela - 4ª y 5ª plantas
28050 Madrid (España)
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com